

CHORI ITZTUNA.

Kayolatikan kanpora oi zan
Irteten chori itztuna,
Asko zekiyen eta oso zan
Gauz gozochuen jatuna;
Bada ondocho berdintzen bazan
Chit zan egazti jarduna,
Gañera berriz egualdi zakar
Charren adierazduna.

Eguarte batez zebilelarik
Kayolatikan kanpuan,
Licharkeriyan asi zan gogoz
Eltze zar baten albuau;
Ikusirikan ollo iſter bat
Eltzean nola zeguan,
Azkar kolpeka asi zitzayon
Lapur zitalen moduan.

Bañan ara zer gerta zitzayon
Ibillirik lapurketan:
Uste gabian erori eta
Sartu Zan buruz saldetan;
Bada lumak an utzi zituben
Salda on irakiñetan,
Eta soildua gelditu zan chit
Lumarik gabe penetan.

Gure artean ere askotan
Licharkerizko kontuak,
Izan oi dira lau ertzetatik
Gogor ſamarki lotuak;
Ikusi arren oso gertuan
Daudela gauza goſuak,
Garratz litezke uste gabian
Len goſo irudituak.

JUAN IGNAZIO URANGA.